



RASFF TXOSTENA

ELIKAGAIAK

ALERTAK - JAKINARAZPENAK

Jakinarazpenen kategorizazioa

Jakinarazpenen jatorria


Kutsadura iturrien sailkapena

Kutsatzaile nagusiak eta inplikaturako elikagaiak

2020ko BIGARREN LAUHILEKOA


JAKINARAPENEN KATEGORIZAZIOA

2020ko bigarren lauhilekoan elikagaiei buruzko 901 jakinarazpen izan dira. Horietatik 280 alertak izan dira (%31), 389 informazio-jakinazpenak (%43) eta 232 mugan egin diren ukapenak (%26).



JAKINARAZPENEN JATORRIA

Kutsatutako produktuen jatorrizko herrialdeak hurrengoak izan dira:




Asiari dagokionez, kutsatzaileen % **28,5a Turkiakoak** eta % **18,5 Txinakoak**. Europari dagokionez, jakinarazpen gehien sortu dituzten herrialdea **Polonia** izan da, % **23,5**arekin, bigarren **Frantzia** izan delarik % **10**rekin. Afrikaren kasuan, **Nigeriak**, jakinarazpenen %**23** izan ditu. Azkenik, **Amerikaren** kasuan **EEBB %33a** eta **Brasil %24,5**arekin dira jakinarazpen gehien sortu dituztenak.

KUTSADURA ITURRIEN SAILKAPENA

2020ko 2. lauhilekoan zehar, Europako Informazio Azkarraren Sistemak (RASFF) **elikagaien 901 alerta eta jakinarazpen** berri eman du. Jakinarazpen guztietatik, kutsadura iturrirei dagozkien zenbatekoak honako hauek dira:

Kutsadura iturria	%
Kutsadura biologikoa	% 35,5
Iruzurrak	% 17,5
Mikotoxinak/biotoxinak	% 13
Hondakinak	% 10,5
Kutsadura kimikoa	% 9
Produktuaren egoera higieniko txarra	% 6
Kutsadura fisikoa	% 4,5
Metal astunak	% 3
Bestelakoak	% 1



KUTSATZAILE NAGUSIAK ETA INPLIKATUTAKO ELIKAGAIK

Mikotoxinek eragindako kutsaduren artean, kasu gehienetan, % 71,5an, kutsadura **AFLATOXINEK** eragindakoa da eta, horrelakoetan **KAKAHUETEA** kutsaduren % 50,5a eragin du. Kasu gehienetan, % 28an, kakahuetea **ARGENTINA**tik zetorren.

Kutsadura biologikoei dagokienez, **SALMONELEK** kutsaduren %70a eragin ditu. **Salmonella sp** da talde honetako protagonista nagusia kasuen % 62,5an. **OILASKOA** izan da produktu protagonista %42eko kasuetan, %35eko kasuetan **POLONIA** jatorria zelarrik. Beste salmonelei dagokienez, %29,5a **Salmonella enteritidis**i dagokio. **OILASKOAK** eragin ditu kasuen % 94a eta %92ko kasuetan **POLONIA** izan da jatorria eta %8a **Salmonella typhimuriumi**, kasu honetan **ESKORTA-HEGAZTIAK** protagonista direlarik (%72a) eta europearrak (%100).

Kutsadura biologikoarekin jarraituz, **Listeria monocytogenes** bakteriak jakinarazpenen %13,5a eragin ditu, **IZOKIN-KETUA** %23ean inplikaturik egonda, **FRANTZIA** jatorrikoa %40an..

Hondakinei dagokionez, **PESTIZIDAK** %77,5a dira eta **MEDIKAMENTUAK** %22,5a. Pestiziden kasuan, **BARAZKIAK** inplikaturik daude kasuen %63ean, gehien bat **PIPER**etan (%74) eta **TURKIA** jatorrikoak (%88).

Jasotako iruzurru guztien artean, **ETIKETAN ADIERAZI GABEKO ALERGENOEK** 33,5%ak, suposatuta dute. Bestalde, %40a **ELIKAGAI-OSAGARRI**etan debekatutako substantziak erabiltzeagatik.

